



## Trebiñu Euskaraldia 2018

*Euskaraldia* Euskal Herriko instituzio eta euskalgintzako elkarteek sustatutako egitasmoa da. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz egingo dugu.

Bi rol egongo dira: *belarriprest*-ak, euskara ulertzeko gai direnak eta *ahobiziak*, euskaraz hitz egiteko gai direnak. Txapa bat eramango dugu guztiok soinean eta txapa dute horiekin euskaraz arituko gara.

Oso garrantzitsua da parte hartzeko izena ematea. Horretarako bi bide daude:

1. On-line: <http://izenematea.euskaraldia.eus/> helbidean.
2. Trebiñun: hurrengo orrialdean duzun orria beteta, [euskeratrebino@gmail.com](mailto:euskeratrebino@gmail.com) helbidera bidaltzea edo Trebiñu edo Argantzungo Udaletxeetan uztea.

16 urtetik gorakoek hartu ahalko dute parte.

Egitasmo hau sendotu eta ospatzeko, abenduaren 1ean jai bat ospatuko dugu Bajaurin. Aurrerago zabalduko dugu informazioa, baina gorde data hori agendan!!!

---

El *Euskaraldia* es una iniciativa impulsada por las instituciones de Euskal Herria y asociaciones euskaltzales. Desde el 23 de noviembre de 2018, hasta el 3 de diciembre, aquellas/os que hablamos o entendemos euskera lo utilizaremos en nuestro día a día.

Habrà dos roles: el *Belarriprest*, el/la que es capaz de entender y el *ahobizi*, el/la que habla. Todos/as los/as participantes llevaremos una txapa y nos comunicaremos en euskera con todos/as aquellos/as que la lleven.

Es muy importante inscribirse en el proyecto. Para ello hay dos vías:

1. On-line: en la dirección <http://izenematea.euskaraldia.eus/>
2. En Trebiño: rellenando la hoja que va a continuación y enviandola a [euskeratrebino@gmail.com](mailto:euskeratrebino@gmail.com) o entregándola en los Ayuntamientos de Trebiño o Argantzun.

Podrán participar las personas mayores de 16 años.

Para fortalecer y celebrar esta iniciativa, el 1 de diciembre organizaremos una fiesta en Bajauri. Os informaremos más adelante, pero guardad la fecha en vuestras agendas!!!



AHOBIZI



BELARRIPREST

IZENA

1. ABIZENA

2. ABIZENA

GENEROA



EZ BINARIOA



EMAKUMEA



GIZONA

LURRALDEA



ARABA



BEHE NAFARROA



BIZKAIA



GIPUZKOA



LAPURDI



NAFARROA



ZUBEROA

UDALERRIA

HERRIA/AUZOA

JAIOTZE URTEA





TELEFONO ZENBAKIA

POSTA ELEKTRONIKOA

INFORMAZIOA JASOTZEA



ONARTZEN DUT

LEGE AIPUA\*



ONARTZEN DUT

## \*LEGE AIPUA

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK ohartematen dio erabiltzaileari datu pertsonalen fitxategi automatizatu bat dagoela EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK sortua EUSKARALDI Arako eta berak erabiltzeko, bere ardurapekoa, xede dituen erabiltzailearekin harremana mantentzea eta kudeatzea eta informazio egitekoak. Baldintza orokor hauek onartzerakoan EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK erabiltzailearen datu batzuk bildu behar ditu zerbitzua emateko ezinbestekoak direnak.

### Fitxategien erregistroa eta formularioak

Erregistratzeko formularioa betetzea ezinbestekoa da EUSKARALDIAN parte hartzeko zerbitzuetara sarbidea izateko. Eskatzen diren datu pertsonalak ez badira ematen edo datuak babesteko politika hau ez bada onartzen, ezin da harpidetu, erregistratu edo datu pertsonalak eskatzen diren sustapenetan parte hartu. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoaren 15/1999 xedatutakoarekin bat, adierazten dizugu erabiltzaile moduan erregistratzetik jasotako datu pertsonalak EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK jabe duen fitxategi batean biltegiturako direla, lege eskatzen diren segurtasun neurriak aplikatuta.

### Datuen zehaztasuna eta egiazkotasuna

Erabiltzailea da ematen dituen datuen zehaztasunen eta egiazkotasunaren arduradun bakarra, EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK horretatik etor daiteken edozein erantzukizunetik libre dago. Erabiltzaileek emandako datu pertsonalen zehaztasuna, indarraldia eta egiazkotasunak bermatzen dituzte eta datu horien gain eratorri ahal den erantzukizuna bere egiten dute, kasu guztietan, eta behar bezala gaurkotuta mantentzeko konpromisoa hartzen dute. Erabiltzaileak onartu egiten du erregistro edo harpidetza formularioan informazio osoa eta zuzena ematea. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK ez du bere gain hartzen berak egin ez dituen informazioen edo beste iturri bat jatorri duten egiazkotasunaz, beraz ez du ardurarik hartzen informazio horren erabileratik etor daitekeen edozein kalteen gainean. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK berretzat gordetzen du bere webguneetan jasota dagoen informazioa eguneratzeko, aldatzeko edo ezabatzeko eskubidea, eta ahal du informaziorako sarbidea mugatu edo eragotzi. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK ez du erantzukizunik erakundetik kanpo iturriek emandako informazioaren ondorioz erator daitezken oker, akats edo ez egitetatik eragin daitezken kalte edo galerengatik.

### Xedeak

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAREN xedea da EUSKARALDIA ekimenaren barruan erabiltzailearekin harremana mantentzea eta kudeatzea, eta informazio lanak egitea.

### Hirugarrenei datuak ematea

Datu emaelek webgune honen bitartez datuak ematerakoan, onartu egiten du EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK datu hauek hirugarren batzuri uztea, beti ere EUSKARALDIA ekimenaren xedetarako. Hain zuzen, datu emaelek baimena ematen du EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK datuok EUSKARALDIAREN ekimenaren parte hartzen duten beste erakundeetara utzi diezaion, hala nola EUSKARALDIAKO koordinazio mahaiari, herrietako batzordeetara edo euskara elkarteetara. Era berean datu-emaelek baimena ematen du datuok Soziolinguistika Klusterrari utzi diezaion ikerketa xedetarako.

### Datuak ikusteko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubidea nola gauzatu:

Datu pertsonalak ikusteko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, eskaerak bidali ahal dituzue EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO helbide elektronikoa honetara datuak@topagunea.eus edo posta arruntez Landako Elkartegai, 102 bulegoa, Landako Etorbidea, 4 (48200 Durango) helbidera, erreferentzia moduan LOPD jarri. Eskubide horiek gauzatu ahal izateko, eta Datuen Babeserako Agentziaren urtarailren 19ko 1/1998 Instrukzioan ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da zure zure nortasuna egiaztatzea zure NANren edo Zuzenbidean onartua den beste agiri baten kopia bidali diezaiozula EUSKALTZALEEN TOPAGUNEARI. Edonola ere, zure erregistroko datuen aldaketa edo zuzenketa sitean bertan egin ahal izango da, aurrez erabiltzaile eta pasahitzarekin identifikatuz. Halaber, adierazten zaizu Datuen Babeserako Espainiako Agentzian (AEPD) errekamazioa jar dezakezula EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK zure eskaera egin eta hilabeteko epean erantzunik eman ez badizu. Kasu horretan zure errekamazioa Datuen Babeserako Espainiako Agentziari bidali ahal diozu, Jorge Juan kalea 6, 28001 Madrid.

### Segurtasun neurriak

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK lege eskatzen diren datu pertsonalen babeserako segurtasun mailak hartu ditu, eta ahaleginak egiten ditu bere esku dauden gainerako neurri eta baliabide teknikoak jartzeko. ez dadin gertatu emandako datu pertsonalak galdu daitezela, oker erabili daitezela, alda daitezela, baimenik gabe erabili daitezela edo lapurtu daitezela. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK ez du erantzukizunik: sistema elektronikoa honen funtzionamendu operatiboan gerta litezkeen interferentziatetik, ez egiteetatik, etetatik, birus informatikoetatik, telefono matxuretatik edo deskonexioetatik sor daitezken kalte eta galerena; telefono linitako akatsek edo gainkargak edo Datuak Prozesatzeko Zentruetako gainkargak sistema elektronikoa honetan, internet sisteman nahiz bestelako sistema elektronikoen sortutako atzerapen edo blokeoena; hirugarrenek EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAREN kontrolatik kanpo sor dezaketen bidegabeko sarrerek sor dezaketen kalteena. Edonola ere erabiltzailea jabe izan behar da interneteko segurtasun neurriak ez direla gaindiezinak.

### Onarpena eta baimena

Erabiltzaileak adierazten du datu pertsonalen baldintzen gaineko informazioa eman zaiola, eta onarpena eta baimena ematen dituela EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK datu pertsonalen tratamendu automatizatu egin dezan Datu Pertsonalen Babeserako Politika honetan aipatutako xedetarako. Webgunean eskaintzen diren zerbitzuetako batzuk datu pertsonalen babesean berriazko aurreikuspenak jasota dauzkaten baldintza partikularrik izan ditzakete.